

Landatu istorioak eta mundua loratuko da!

Elena Perikleous

Behin batean, haur bat jaio zen, maitagarrien ipuinetako heroiak baino hobeto bizitzeko irrikaz, haiek bakarrik bizi baitziren zoriontsu betiko.

Haurra hazi eta aldatu egin zen, irakurri, eta On Kixote bihurtu zen, haize-errotak borrokatuz; Alizia, bizitzara gauza miresgarriak ekarri; Robin Hood, oihanak salbatuz; otso, ilargiari kantatzen zion otso-taldea elkartuz.

Urteak igaro ziren, baina munduan ez zen hark garai batean amestutako aldaketaren arrastorik.

Hala ere, haurrak mundu guztiz berri bat osatzea lortu zuen lorategiko patioan, hark maite zuen guztiaz betea.

Urte gehiago igaro ziren.

Eta liburuak arimari jakituria xuxurlatzen ziotenez, haurrak bazekien zer egin behar zen.

Udazkena iritsi zenean, lurra landu eta haziak erein zituen.

Negua iritsi zen.

Haurrak pazientziaz itxaron zuen geruza zuria urtu arte, ernamuin ziren liburuak laguntzaz elikatua.

Gero udaberria izan zen. Hosto bigunak sortu ziren zurtoinetatik.

Enborrak loditu egin ziren, adarrak zabaldu, ernamuinak sortu.

Haurraren arima loratu egin zen, kolorez eta usain gozoz beteta.

Itzulpena: Iñaki Mendiguren

Eta uda?

Txalupen, belaontzien, globo aerostatikoen, bizikleten... garaia zen, mundu zabalean zehar bidaiatzeko garaia!

Orain haurrak bazekien, zalantzarik gabe:

Hura zen mundua aldatzeko modua: landatzaile bihurtzea.

Istorio magikoen landatzaile, hitzak ereinez, irudiak landuz, miresmenaren uzta jasoz, irudimena ureztatuz.

Eta horrela istorioak hazten eta hedatzen hasi ziren.

Eta orduan?

Haurrak maitasunez inausi zuen, lore-sortak emanez handik pasatzen zirenei, bakez, itxaropenez, indarrez eta ezinezkoan fedez osaturiko lore-sortak.

Mirari txikien sortak, guzti-guztientzat.

Udaberri oro, apirilaren bian, haurrak ereindako istorioek lorez gainezka jartzen zuten mundua.

O, eta lorezaintzako tailerren bidez, uztaturiko jakinduria berdin transmititzen zitzairen gazte nahiz zaharrei.

Eta haurraren lorategia Itxaropenaren Lorategi bihurtu zen, eta patioa Gauza Miresgarrien Patio, magoak beti tinko eusten baitzion bereari, narrazioaren hari gorriak haize kirritan zabalduz.

Testua: Elena Perikleous Ilustrazioa: Sandra Eleftheriou

iBby INTERNATIONAL BOARD ON BOOKS FOR YOUNG PEOPLE

2026KO HAUR ETA GAZTE LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Landatu istorioak eta mundua loratuko da!



Planta historias e o mundo florecerá!
Sät Geschichten und die Welt blüht auf!
Ουτέποτε ιστορίες και ο κόσμος θα ανθίσει!
Pianta storie e il mondo fiorirà!
Plant stories and the world will bloom!

Mezua Zipre guztiko 19 eskoletako ikasleek aukeratu zuten, egile eta ilustratzaile zipretar ospetsuen nazio mailako lehiaketa baten ondoren. Inpartzialtasuna bermatzeko, parte-hartze guztiak izenpetu gabe igorri ziren eskoletara. Sortzaileen nortasuna botoen azken zenbaketaren ondoren bakarrik eman zen jakitera.



Elena Perikleous



Haurren Eskubideen Babeserako komisarioa, Txipreko Errepublika.

Elena Perikleous irrika batekin jaio zen: bilaketaren irrikarekin. Haurtzarotik, hitzak bildu, isiluneei erreparatu eta zuhaitzek eta liburu-orriek xuxurlatutako istorioak entzuten zituen.

Hezkuntza ikasi zuen eta Ingurumen Hezkuntzako graduondoko ikasketak egin zituen, natura zaintzea eta haurrak zaintzea sentiberatasun beraren jardunbideak direla uste baitu.

Gaur egun, Haurren Eskubideak Babesteko komisario gisa, Elenak etengabe lan egiten du ume bakoitzaren ahotza entzun, ulertu eta errespetatzen duen gizarte baten ikuspegiaren alde. Hezkuntzan, kulturen eta literaturan egiten duen lanaren bidez, haur guztiek bizitzeko, adierazteko, parte hartzeko eta artea eta kultura eskuratzeko duten eskubidea defendatzen du.

Elena Perikleousek hogeita zortzi liburu argitaratu ditu haur, gazte eta helduentzat, eta horietako asko Estatuko Literatura Sariarekin eta Zipreko eta Greziako literatura-erakundeekin sariarekin ohoratu dituzte.

Istori bakoitza hazi bat dela uste du, eta maitasunez landatzen denean, mundua loratu egiten dela.

<https://elenaperikleous.com/>

Sandra Eleftheriou



Sandra Eleftheriouk arte grafikoak ikasi zituen eta 2004an hasi zuen bere ibilbidea ilustratzaile gisa. Ordudanik argitaletxe askorekin kolaboratu du, eta bere lanak errekonozimendu zabala lortu du, hainbat sari irabaziz. Sei aldiz eman diote Zipreko Ilustrazio Sari Nazionala, Zipre ordezkatu zuen 2012ko IBBYren Ohorezko Zerrendan, eta Hans Christian Andersen Sarirako izendatu zuten 2020an.

Gainera, Madame Figaro Women of the Year sarietarako izendatu zuten Sortzaileak kategorian 2018an eta berriro 2022an. Zipreko eta Greziako Ilustrazio Sari Nazionalak epaimahaikide ere izan da.

Ilustrazioaz haratago, Eleftheriou autore arrakastatsua da, eta haren lanak gorespen handiak jaso ditu. Zipreko IBBY saria eman zioten Fytoula Vakana-rekin batera egindako *Hiritik nator* lanagatik. Bere *Printze galduaren itzulera* antzezlanak Zipreko Antzerki Erakundeak ohoratu zuen, eta bere *8en Zaindaria: Hasiera* liburuak Zipreko Gazte Literaturako Sari Nazionala jaso zuen. 2021ean, Eleftheriouk bere testuak Metaichmio Publications argitaletxearekin elkarlanean ilustratzeko zuen aspaldiko nahia gauzatu zuen. Horren ondorioz, *Irakasleak gorroto nau!* (2021) eta *Izar bat zara!* (2022) argitaratu zituen.

<https://www.facebook.com/sandraikones/>
<https://www.instagram.com/sandraeleftheriou/>

